



AMETSAK EREITEN, ITXAROPENAK BILTZEN

Bety Cariño,

indigena feminista, aktibista,
amalurraren eta herrien eskubideen
babeslearen istorioa.

RUMA BARBERO



**Mugarik Gabe
Nafarroa**

ONG di de Cooperación con el Sur

Lurra eta herrien babesle diren emakumeei:

Asko dira, herri eta lurraren defentsan funtsezko papera jokatu eta gizarte borrokak zuzendu dituzten emakumeak. **Bety Cariño** horren eredu garbia izan zen: **CACTUS** (Laguntza Komunitarioaren Zentrua) eko zuzendaria, Mexicoko Hegoekialdeko irratiko komunitario indigenakoa kidea eta herri eta emakumeen giza eskubideen babesle fidela.

Komiki honen bitartez, bere eta herri indigenen borroka islatu nahi izan da. Hauxe bidezko egin duzuen guztioi esker mila. Batez ere, **Bety** ezagutu zenuten pertsoneri, lehenbiziko egunetik azkenera arte ideiak partekatzen, gogotsu izan zaretelako, milesker ere **Rumari**, **Betyren** borroka hain fidelki hartzen jakin ahal izan duelako eta eskerrak ere **Carmeni**, **Betyren** ahizpari. Atlantiar itsasoaren bestaldetik egin dituen ekarpenei esker errealitatetik ahalik eta gertuen egin duelako kontakizun hau.

Gure artean betirako iraunen duen **Betyri** eta bera bezala, lurra, bere herri eta eskubideen alde borrokatzen duten emakume guztiei eskaini nahi diegu komiki hau. Bizitzaren defendatzaile, amets ereile eta itxaropen biltzaile diren emakume guzti horien alde, beren borrokak ahanzturan erori ez daitezen.

Mugarik



Marrazkiak: **Ruma Barbero**

Gidoia: **Ruma Barberok** egituratua, Mugarikeko argitalpenak eta **Carmen Cariñoren** testuak oinarritzat harturik.

Itzulpena: **Bingen Amadoz** eta **Mayu Serreau**

2010. APIRILAK 27. SAN JUAN COPALARAKO ERREPIDEAN. OAXACA, MEXICO.




NAZIO ARTEKO BEGIRALE, GIZA ESKUBIDEEN BABESLE, IRAKASLE ETA KAZETARIEK OSATURIKO JENDE MULTZOA AUTOZ DOA UDAL AUTONOMORANTZ.



BERE HELBURUA: HILABETE LUZEETAN, AIPATU HERRIA JASATEN ARI ZEN SETIO PARAMILITARRA HAUSTEA.





ETA AURPEGIA ESTALITA ZUTEN HOGEITA HAMAR BAT
GIZONEK BURUTU ZUTEN.

GERTUKO MENDIETAN EZKUTATURIK EGUNAK EMAN BEHAR
IZAN ZITUZTEN PERTSONA BATZUEK.



TOKITIK GERTU, AUTO-ILARAKO JENDEA LAGUNTZERA ZIHOAN KOMANDANTE BATEK ITZULTZEKO AGINDUA JASO ZUEN.



ABIAN ATERATAKO AUTO-ILAREN BERRIRIK ZUTENIK UKATU ZUTEN AGINTARIEK, ALDEZ AURRETIK EGUNKARIETAN ARGITARATU ZUTEN ARREN.



SEGADAK 10 LAGUN ZAURITURIK UTZI ZITUEN, BAITA BI HILDAKO ERE: BETY CARINO GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO EKINTZAILA ETA JYRI JAAKOLA EKINTZAILA FINLANDIARRA. BERTAN GERATU ZIREN BERE GORPUAK, HURRENGO EGUNEAN POLIZI-ORDEZKARITZA BAT SARTU ZEN ARTE.



UDAL AUTONOMOAK

(BAKE EKIMENAK)

ALDERDI ETA ERAKUNDE POLITIKOEN TARTEKARITZARIK GABE, BEREZKO GOBERNUAREN BITARTEZ HIRI-BIZITZA MOLDATZEA BILATZEN ZUTEN KOMUNITATE INDIGENEN ERRESISTENTZIAREKIN AMAITZEA ZEN SAN JUAN COPALARI EGOTZITAKO SETIOAREN ASMOA.



HORTAZ, UDAL HORREN ERRONKA BEZALAKOEI, GAUR EGUN ERE AGINTZEN DUTENEN KONTRAKO MEHATXUA IZATEA LEPORATZEN ZAIE.

SETIOA

[KONTROL ARMATUA]



AIPATUTAKO KOMUNITATEEN ERRESISTENTZIAREKIN AMATZEA NAHI ZUEN SETIOAK.



2010EKO URTARRILAZ GEROZTIK, EZINEZKOA ZEN BATETIK BESTERA LIBREKI IBILTZEA.



METRAILADOREEN TIRO SEGIDARI AURRE EGIN BEHAR ZION SAN JUAN COPALA ALDERA ZERAMATEN MENDI EDO BIDEXKETATIK IBILI NAHI ZUEN EDONORK.



BERTAN, NOLA HALA, BIZI ZIREN EHUN FAMILIENTZAT JANARI, URA ETA BOTIKEN SARRERA ERAGOZTEN ZUTEN.




BERE BIZTANLEAK ETXEAN HERTSIRIK BIZI ZIREN, KAN-
PORA ATERA EZINIK...



ETA EGITEN ZUTENEAN ARRISKUAN JARTZEN ZUTEN BI-
ZITZA.



HAURRAK EZ ZIREN ESKOLARA JOATEN...



EZ ZEGOEN EZTA OINARRIZKO ZERBITZURIK ERE.



UNE HORRETANTXE KOMUNITATEAN, UBISORT ZEN MANTATZEN ETA KONTROLATZEN ZUENA.



GATAZKA POLITIKOAK URTEETAN IZAN DIRA ESKUALDEAN. KOMUNITATEEN AGINTEAZ JABETZEKO BORROKA BI TALDEREN ARTEAN EMATEN DA: MULT (BATASUN ETA BORROKA TRIKIREN MUGIMENDUA) ETA UBISORT (TRIKI ESKUALDERAKO ONGIZATE SOZIALAREN UNITATEA), AZKEN HONEK SETIOAREN ARDURA ZUEN ETA BETY ETA JURYREN HILKETAK BURUTZEA LEPORATZEN ZAIO.



1994AN SORTU ZENETIK, UBISORTI, PRI ALDERDIAREKIKO LOTURA EGOTZI ZAIO ETA BETI BERE EKINTZETAN, BEZERO MODUKO MENPEKOTASUNA ETA PARAMILITARREN IZAERA NABARMENDU ZAIZKIO.



MULTI, BERRIZ, 2008KO APIRILEAN, FELICITAS MARTINEZ ETA TERESA BAUTISTA, BETYREN LAGUN ESATARIEN HILKETA BURUTZEAREN ARDURA EGOTZI ZAIO.



ETENGABEA IZAN DA UBISORT ETA MULTEN ARTEKO LISKARRA.




BI TALDE HORIEN ARTEKO DISIDENTZETATIK MULTI SORTU ZEN (BORROKA TRIKI BATERATJAREN MUGIMENDU INDEPENDIENTEA). ERAKUNDE HONEK SAN JUAN COPALA UDAL AUTONOMOAREN SORRERA SUSTATU ZUEN, ESKUALDEA BAKETZEKO.



VENIDOS AL MUNICIPIO AUTÓNOMO DE SAN JUAN COPAL

UBISORTEK ETA, BATEZ ERE MULTEK, TRIKI ESKUALDEA POLITIKOKI MENPERATZEA BILATZEN DUTE, ETA HORREN BITARTEZ BEREAK EGIN ESTATUTUK DATOZEN LAGUNTZA EKONOMIKOAK, BAITA URA, BASOAK ETA MEHATEGIAK ERE.



ESTATUKO INDARKERIA

IRAUNKOR, ETENGABEA IZAN DA, ULISES RUIZ (2004-2010) ETA GABINO CUE (2010-2016) REN AGINDUPEAN, OAXACAKO GOBERNUAK TALDE PARAMILITARREI EMAN DIEN LAGUNTZA, BABESA ETA ZIGORGABEKERIA. BETY ETA JYRIREN HILKETA GERTATU ETA SEI URTE BERANDUAGO BAKARRIK BOST LAGUN ATXILOTU DITUZTE, GAUZATU GABE DAUDE ORAINDIK ZORTZI ATXILOTZE-AGINDU ETA EPAIKETARI EZ ZAIO HASIERA EMAN.



SETIO PARAMILITARRA HAUTSI ETA BIZTANLERIARI GIZA LAGUNTZA ERAMATEKO ASMOZ, 2010EKO EKAINAREN 8AN SAN JUAN COPALARAKO KARABANA BERRI BAT IRAGARRI ZEN.

ZORIGAITZOKO AITZIN-ABISU MODUAN, TIMOTEO RAMIREZ, BURUZAGI TRIKIA ETA CLERIBERTA CASTRO BERE EMAZTEA HIL ZITUZTEN. TIMOTEO ZEN BORROKA ETA AUTONOMIA TRIKIAREN SUSTATZAILE NAGUSIA.

MULTI EGIN ZITZAION ORAINGOAN ERRUDUN. BIZITZAREKIN ORDAINTZEN DIRA MEXICON, BAKEAREN ALDE BORROKATZEA EDOTA HERRI INDIGENEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEAREN ALDEKO ERRONKAK. GOBERNUAK ABANDONATU DITUZTE ETA ALDI BEREAN TALDE PARAMILITARRAK BABESTU, MODU HORRETAN BEREN LURRALDE ETA ESKUBIDERIK GABE UZTEKO.

AUTONOMIARRAKO HEZKUNTZA

HEZKUNTZA ALORREAN ZUEN BOKAZIOAK, ESKOLAK SORTZE ALDERA BIDERATU ZUEN BERE EKIMENA, GAZTE INDIGENEK IKASKETAK JARRAITU ETA BERE HERRIAK BIZI DUEN ERREALITATEAREN JABE IZAN ZITEZEN. NEKAZAL ESKOLAK ZIREN HORIEK ESPERIENTZIAK ETA EZAGUPENAK TRUKATZEKO. HANTXE ERE ERAKUSTEN ZEN LURRALDEAK NOLA DEFENDATU ETA ZEINTZUK ZIREN BIZTANLE ETA HERRIEN ESKUBIDEAK.

KOMUNIKAZIO INDIGENA

MIXTEKA ETA TRIKI HIZKUNTZAK ERABILTZEN ZUEN IRRATI SAREA SUSTATU ZUEN. BERE INFORMAZIOA SORTZEKO HERRIEK DUTEN ESKUBIDEA ETA HERRIEN ERREALITATEARI BURUZ ALBISTEAK EMANEN LITUZKETEN KOMUNIKAZIO TRESNEN JABE IZATEA ZEN AZKEN FINEAN ASMOA.

KOMUNITATEAREN EKONOMIA

EMAKUMEEN ARTEKO LAGUNTZA KOMUNITARIOREN TALDEAK SORTZEN ARITU ZEN, BATEZ ERE, LANA ETA KOMUNITATEEN ARTEKO PRODUKTU-TRUKAKETAREN BITARTEZ TOKIAN TOKIKO EKONOMIA INDARTZEKO. HORRELA GEHIEN BAT EMAKUME MIXTEKOEZ OSATUTAKO PRODUKZIO KOOPERATIBA TXIKIAK SORTU ZIREN ETA GAINERA, CACTUS ERAKUNDEA, ERLATEGI SOLIDARIOA IZENEKO SAREAN PARTAIDE IZAN ZEDIN, BULTZATU ZUEN. (SARE HORRETAN MAILA NAZIONALEKO ERAKUNDE DESBERDINAK BILTZEN DIRA. BESTELAKO EKONOMIA MOTA ERAIKITZEN DIHARDUTE, EZ KAPITALARENA BAIZIK ETA PERTSONEN BIZITZA ETA BEREN HERRIAK INDARTU AHAL IZATEKO).



CACTUS



HONEN PROTAGONISTAREN IRUDIA ETA BERE PARTAIDETZA EZAGUTU ZUTEN PROIEKTU UGARIETAN SAKONTZERA.

ARIÑO

ELIKADURA SUBIRANOTASUNA

CACTUSEK OSO BORROKA ARDATZ GARRANTZIZKOA SUSTATU ZUEN. ALEGIA, TRANSGENIKOEN AURKAKO BORROKA ETA BERTAKO HAZIEN BABESA ETA PROMOZIOA, ELIKADURA SUBIRANOTASUNA INDARTU AHAL IZATEKO.

JUSTIZIARRAKO ETA QUINTASUNERAKO GIZA ESKUBIDEAK

BEREBIZIKO GARRANTZIA EMAN EMAKUMEEN ESKUBIDEEN DEFENTSARI, OHIZKO EGINKIZUNETATIK IHES EGITEA, ERABAKI GUZTIAN BOZKA ETA AHOTSA EDUKITZEA.

AMA LURRAREN ZAINKETA

TOKIAN TOKIKO GOBERNUK ETA HERRIEI LURRAK OSTU ETA AMA LURRAREN USTIAKETA BASATIAN INTERESA BAINO EZ DUTEN ENPRESA NAZIONAL ZEIN NAZIO ARTEKOEK BULTZATZEN DITUZTEN MEGAPROIEKTUEN KONTRA, AMA LURRAREN BABESA.

BERE PARTAIDETZA IZAN ZUTEN SAREAK

OAXAKO HERRIEN HERRI BATZARREA, HERRIEN AUTODETERMINAZIORAKO BATZARRE MEXIKARRA (AMAP) HERRIEN GUNE ERTAMERIKARRA, FRONT LINE DUBLIN DEFENDERS PLATAFORMA, MEATEGIEK KALTETUTAKOEN SARE MEXIKARRA (REMA), EZLNEKO LACANDONA OHIANEKO SEIGARREN ALDARRI-KAPENA, "ARTORIK GABE, HERRIRIK EZ" NEKAZAL MUGIMENDU INDIGENA ZAPATISTA ETA ERLATEGI SOLIDARIOA.



SIN MAÍZ NO HAY PAÍS
ALIMENTOS CAMPESINOS PARA MÉXICO
¡EL HAMBRE NO ESPERA!

HAURTZAROA ETA KONZIENTZI HARTZEA

ALBERTA CARINO TRUJILLO, NIJU SAVI EDO MIXTEKO HERRI INDIGENAKO NEKAZAL FAMILIA BATEN ALTZOAN JAIKO ZEN 1973KO APIRILAREN 8AN, HUAJAPAN DE LEONEN, OAXACAKO MIXTEKAN. CHILA DE LAS FLORES, PUEBLA ESTATUKO KOMUNITATE MIXTEKOAN EGIN ZITUEN OINARRI ETA ERTAINEKO HEZKUNTZA IKASKETAK.



TXIKITATIK ASKATASUN TEOLOGIAREN ILDOTIK SORTUTAKO DINARRIZKO ELIZ KOMUNITATEETAN HARTU ZUEN PARTE. GUNE HORI BIDE NAGUSIA IZAN ZEN, ANTOLATUTAKO ALOR KOMUNITARIO DESBERDINEKIKO LOTURAK SORTU ETA HAUSNARKETA ETA ERREALITATEARI BURUZKO AZTERKETAK, LANTRESNA MODUAN ERABILIZ, KOMUNITATEAREN ESKUBIDEAK BERMATZEKO.



1988AN CHILA DE LAS FLORESETIK ATERA ZEN, OAXACAKO BENITO JUAREZ UNIBERTSITATE AUTONOMOKO "ESKOLA PREPARATORIOA" DERTIZANEAN IKASTEKO.



1994KO ALTXAMENDU ZAPATISTA GARRANTZI HANDIKOA IZANEN DA GURETZAT, HERRIALDEKO BESTE TOKI BATZU-ETAN, IZATEN JARRATZEKO, IZATEKO, GURE ESKUBIDEAREN ALDE BORROKATZEN DABILTZALA BESTE KIDE BATZUK DABILTZALA, OHARTARAZIKO DIGULAKO.



BETIK ZAPATISTA ETA MAGONISTATZAT ZEUKAN BERE BURUA. MAGONISMOA ANARKISMOAREN BERTSIO MEXIKARRA IZAN DA. ENRIQUE ETA RICARDO FLORES MAGON ANAI LIBERTARIO ETA INDIGENISTEI ZOR ZAIE IZENA. MAGONISTAK, IRAULTZAREN AINTZINDARIAK KONTSIDERATU DITUZTE.



1994 ETA 1998 ARTEAN HEZKUNTZA PROIEKTU EZBERDINETAN KOLABORATU ZUEN (PREPARATORIO KOMUNITARIOAK), HELDUENTZAKO HEZKUNTZA...



ETA EKONOMIA SOLIDARIOA PUEBLAKO MENDATE BELTZEAN.



MILITANTZIA

BESTE KIDE BATZUEKIN CACTUS (ELKARLANEAN, LAGUNTZA KOMUNITARIOAREN ZENTRUA) SORTU ZUEN OAXACA ETA PUEBLAKO ESKUALDE MIXTEKOAN. BETYREN HITZETAN HONAKO HAU EK ZIREN HELBURUAK.



CACTUSETIK ZAZPI ONARRI ZAPATISTAK GIDA GARRANTZITSUA IZANEN DIRA LAN KOMUNITARIOARENTZAT.



1. ZERBITZATU ETA EZ BIZI INORREN LEPOTIK



2. ORDEZKATU ETA EZ INORRI TOKIA KENDU



3. ERAIKI ETA EZ ERAITSI



4. MEN EGIN ETA EZ MANATU



5. PROPOSATU ETA EZ INPOSATU



6. SINESTARAZI ETA EZ GARAITU



7. JAITSI ETA EZ IGO

2002. HERRIEN AUTODETERMINAZIORAKO ITUN MEXIKARRA- (AMAP) REN PARTAIDE, BAITA MEGAPROIEKTUEN INPOSAKETAREN KONTRA BORROKATZEN DUEN SARE MEXIKARREAN ERE. HAUXE JAIO ZEN, VICENTE FOX EN GOBERNUA (2000-2006)REN BITARTEAN PUEBLA-PANAMA PLANGINTZAREN SORRERA GERTATU ONDOREN.

Cactus-eko familiako
kide batzuk.



AMAPEKO KIDEA IZANIK, GIZARTE-GUNE DESBEDINETAN, PARTE HARTU ZUEN. BERE KONPRMISO EKINTZAILEAK BULTZATUTA, MEXICOREN ORDEZKARITZA IZAN ZUEN HERRIEN GUNE ERTAMERIKARREAN. GLOBALIZAZIO NEO-LIBERALA, IMPERIALISMOA, GIZARTE PATRIARKALA ETA KAPITALISMOAREN AURKA DIHARDUTEN HERRI BORROKALARIEN KONTEXTUAN SARTU BEHARRA DAGO GUNE HAU. PLANGINTZA BERDINARI AURRE EGITEKO SORTZEN DA 2000. URTEAN ETA HONAKO HAUEK DIRA BERE HELBURU NAGUSIAK: MEGAPROIEKTUEK DITUZTEN ASMO ETA EDUKIEI BURUZ, GIZARTE ALOR GUZTIEN AURREAN, INFORMAZIOA, SALAKETA, KONTZIENTZIA-HARTZEA ETA MOBILIZAZIOA ZABALTZEA.



PUEBLA PANAMA PLANGINTZARI EZ



KAPITALAREN AURKA ETA HERRIENGANDIK, GIZARTE ALTERNATIBAK ERAIKITZEA PROPOSATZEN DU GUNEAK, BAITA MERKATAL ITUNAK IRMOKI GAITZESTEA ERE, HERRIEN ESKUBIDEAK BORTXATZEAK GAIN, HORIEK BAITIRA POBREZI LARRIA, ZORTZE ETA BALIABIDE NATURALEN LAPURKETA EKARTZEN DITUZTENAK.

BETYK ZAPATISTATZAT ZEUKAN BERE BURUA, HORREGATIK 2005EAN, EZLNREN LACANDONA OHIANEKO SEIGARREN ALDARRIKAPENAREN "BESTE KANPAINA" REKIN BAT EGIN ZUEN. ARMADA ZAPATISTAK SUSTARIKO EKIMEN HONEK MEXICO ETA MUNDU OSOKO GIZARTE ERAKUNDEEI DEI EGITEN ZIEN, SISTEMA KAPITALISTAREN BENETAZKO ERALDAKETAREN ALDE BORROKATZERA ETA AMESTUTAKO BESTE MUNDU HORIEK ERAIKITZERA.

EXIA DECLARACIÓN DE LA S



"KIDEOK: BESTE KANPAINA JADAKIN EZ DA GUREA, ESAN NAHI DUT JADANIK EZ DELA SOILIK GUREA. JAKIN EZAZUE, GURETZAT, EZLNKOENTZAK OHOREA DELA AURRERANTZEAN GURE KIDEAK ZARETELA JAKITEA. ETA HONEKIN BATERA ADISKIDETASUNEZ, ZINTZOTASUNEZ ETA, BATEZ ERE, ZUEKIKO LEIALTASUNEZ JOKATUKO DUGULA ERE ESATEN DIZUEGU. ZUEN LANA NOLAKOA DEN ENTZUN ETA IKUSI ONDOREN, USTE DUGU ZUEKIN TOPATZEA, ZORTE HANDIA IZAN DELA GUREA. GIZON, EMAKUME, HAUR, HELDUOK, ZUEK ZARETE HERRIALDE HONETAKO ONENETARIKOAK. ZEINEN ONA IZAN DEN ZUEK TOPATZEA! ELKARREKIN, LUZARO, AURRERANTZA JARRAITZEA ESPERO DUT!"

MARCOS, AZPI-KOMANDANTEA
SEIGARREN ALDARRIKAPENAREN ITXIERAKO HITZALDITIK ATERATA.



"BESTE KANPAINA" REN ANTOLAKUNTZAN ETA BILAKAERAN PARTE HARTU ZUEN BETYK OAXACAKO ESKUALDE MIXTEKOAN ETA PUEBLAKO ESTATUAN.

IRAKASLEEN AURKA GERTATU ONDOREN, 2006KO EKAI-
NAREN 14AN OSATUTAKO APPO (OAXACAKO HERRIEN
HERRI BATZARREAN) IZAN ZEN PARTAIDE.



URTERO BEZALA, IRAKASKUNTZAKO LANGILEEK, GERORA,
ESTATUKO GOBERNUAK ZAPALDUTAKO MOBILIZAZIOAK,
DEITU ZITUZTEN.



ERREPRESIOAREN ESKUTIK JAIO ZEN APPO. HONEK BES-
TE ESKAKIZUNEN ARTEAN GOBERNADOREAREN KARGU-
GABETZEA ETA OAXACAKO HERRIAREN KONTRAKO ZAPAL-
KUNTZAREKIN AMAITZEA EXIJITZEN ZUEN.



HURRENEZ HURREN GERTATU ZIREN ESTATUKO KOMU-
NIKABIDE PUBLIKO NAHIZ PRIBATUEN OKUPAZIO BAKE-
TSUAK, BESTEAK BESTE UNIBERTSITATE IRRATIA.



"RADIO CACEROLA" DEITUTAKOAREN BITARTEZ, GARRANTZI
HANDIA HARTU ZUEN EMAKUME INDIGENAREN IRUDIAK.



ZAPALKUNTZA HANDIAN AMAITU ZEN GATAZKA. HILDAKO
ETA ZAURITU UGARI IZAN ZIREN. AZAROAREN 29AN
DESAGERTU ZIREN APPOREN AZKEN BARRIKADAK.



"ARTORIK GABE, HERRIRIK EZ"KANPAINA NAZIONALEAN SARTU ZEN 2006AN.



HUAJAPAN DE LEÓN (OAXACA)N HIRU ARTO AZOKA ANTOLATU ZITUEN.



ARTO TRANSGENIKOEN EREINTZA SALATZEKO ETA BERTAKO HAZIEN EREINTZA SUSTATZEKO BURUTURIKO LANEN ARTEAN...



MEXICOKO NEKAZARI ETA HERRI INDIGENEN ELIKADURA SUBIRANOTASUNARAKO ITURRI DEN BERTAKO ARTOAREN DEFENTSAN ARITU ZEN ERAKUNDE DESBERDINEKIKO IZAN ZIREN TOPAKETA, GUNE ETA AKTIBITATE ZENBATUEZINETAN.



ABENDUAN, APPOREN KONTRAKO ERREPRESIOA GERTATU ONDOREN, BETYK BERE BIKOTEKIDE ETA SEME-ALABEKIN OAXACAKO ESTATUTIK ALDE EGIN BEHAR IZAN ZUEN, GIZARTE MUGIMENDUAN IZAN ZUEN PARTAIDETZARENGATIK MEHATXATU EGIN ZUTELAKO.



HALA ETA GUZTIZ ERE, GOBERNUAREN AGINDUZ IZANDAKO OAXACAKO HERRIAREN KONTRAKO ZAPALKUNTZA SALATZEN JARRAITU ZUEN, 2007AN ITZULI AHAL IZAN ZUEN ARTE.



2007AZ GEROZTIK ETA OAXACAKO HIRIAN BURUTU ZIREN IRRATI KOMERTZIALEN OKUPAZIOAK EZAGUTU ONDOREN, BETYK DENBORA ETA EGINAHAL ASKO JARRI ZITUEN IRRATI KOMUNITARIO ETA INDIGENEN SORRERAN. HORREGATIK PARTE HARTU ZUEN MEXICOKO HEGO-EKIALDEKO IRRATI INDIGENA ETA KOMUNITARIOEN SAREAN.



"ISILTASUNA HAUSTEN DUEN AHOTSA", EKIPAMENDU ETA TREBATZEAREKIN BATERA SAN JUAN COPALAN OSATURIKO IRRATI KOMUNITARIO TRIKIAREN SORRERA LAGUNDU ZUEN BETYK. LAU HILABETE BERANDUAGO, LEHEN AIPATU BEZALA, TERESA ETA FELICITAS ERAHIL ZITUZTEN, KAZETARI LANETAN ZIHARDUTELARIK. EMAKUME INDIGENEK BEREZKO AHOTSA IZAN ZEZATEN ERAGOTZEKO SAIKERA BAT GEHIAGO.



TERE ETA FELIREN HERIOTZEN SALAKETAK NAFARROARA ERAMAN ZUEN BETY. BERE BIZIPENAK MUGARIK GABEKO KIDEEKIN PARTEKATU ZITUEN.



BERDIN EGIN ZUEN LIZARRAN. BISITA ERREPIKATU ZUEN HURRENGO URTEAN ETA ALTSASUKO INAUTERIETAN ERE IZAN ZEN PARTAIDE.



2010EKO BIDAI HORRETAN BI URTEAN BEHIN IRLANDAKO HIRIBURUAN TOPAKETAK ANTOLATZEN DITUEN "FRONT LINE OF DEFENDERS OF DUBLIN" GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA EGITEN DUEN NAZIO ARTEKO FUNDAZIOKO KIDEEKIN ERE ELKARTU ZEN.

HANKAK TINKO, BURUA ZUT, DUINA, GOGOIA HOTZA ETA BIHOTZA BERO.

ATZERAEZINA EGITEN DA EGUNERO GIZA ESKUBIDEAK BABESTEN DITUGUN EMAKUMEON PRESENTZIA ETA PARTAIDETZA. MUNDU ASKORENTZAT TOKIA IZANEN DUEN MUNDU BAT ERAIKITZEN LAGUNTZEKO, GU GARA ANTOLAKUNTZA, MOBILIZAZIOA, AZTERKETA, EZTABAIDA ETA KONTSENTSUAREN PROZESU SAKON ETA ZABALA BULTZATZEN DUGUNOK. BORROKA ASKOREN ONDORIOA GARA. ODOLEAN DARAMAGU GURE AMATXI GERLARIEN HERENTZIA. GURE SUSTRAIEK EXIJITZEN DIGUTE ETA GURE ALABEK OHIUKATZEN DIGUTE.

**FRONT
FENI**



MARIANO ABARCA, MULTINAZIONAL ATZERRITARRAK CHIAPASEN EZARTZEN ARI ZIREN MEHATEGIEN KONTRAKO EKINTZAILEA ERAHIL ONDOREN, MEXICOKO ENBAXADA KANADARRAREN AURREAN BESTE HITZALDI GOGOANGARRIA EMAN ZUEN BETYK. TRAGEDIAREN ERDIAN BETYREN INDARRA EREDU.



ITXAROPENERAKO MINTZALDIA

HEMEN GAUDE, ENPRESA MULTINAZIONAL HORIEI, GOBERNU TXAR HORIEI, GURE HERRIAK ORDEZKATZEN GAIZKI ARI DIRELA ESATEKO. EZ DIEGU BAIMENDUKO GURE ANAI-ARREBEN BIZITZAK JOKOAN, ARRISKUAN JARTZEKO.



MARIANOK ZIOEN BEZALA, BEHAR BEHARREZKOA DA, ERAKUNDE ETA IDEIA DESBERDINETATIK ABIATUTA, LANEAN ELKARREKIN JOATEA, GURE HERRI INDIGENAK, GURE KULTURA, GURE NORTASUNAREN GAINETIK AURRERATZEN ARI DEN MUNSTRO TRANSNAZIONALA GELDIARAZIKO DUEN EGITURA HANDIA ERAIKITZEKO. EGOERA HONEKIN AMATU BEHARRA DAGO. AHOTSA ALTXATU BEHAR DA.



EZ GARA JENDE LAPURRA,
JENDE XUMEA GARA, JENDE
POBREA, JENDE NEKAZARIA
GARA.

ETXEA, SORO, LURRAREN ARDURA DUGUN
EMAKUMEON INDARRA IKUSI BEHAR DUTE, BETI
GUREKIN DAGOEN INDARRAK BALIOTSUA IZAN BEHAR
DU GOBERNU TXAR HORIEI ESATEKO: EZ DIGUZUE
BELDURRIK EMATEN, GURE HERRI INDIGENEN GARAIA
HELDU DA. GU AKATZEAZ...ASKI DA! UNE DESBERDINA
DA. ANTZINAKO GURE AMATXIEN INDARRA
BERRESKURATUKO DUGU GUK,
NEKAZAL EMAKUMEOK.

INDAR HORREK, GURE HISTORIAREN
INDAR OSOAK, GERATZEA AHALBIDETZEN
DIGU, GAUR, HELEN.

Si no puedo bailar
no quiero
ser
parte
de su
revolucion



BETY, EZ ZINTUGUN LURPERATU, EREIN ZINTUGUN

HITZ HAUEKIN EGIN ZUEN AGURRA BETYREN KIDE ETA LAGUN BATEK, 2010EKO APIRILAREN 29AN, CHILA DE LAS FLORESEKO HILOBIAN. HITZ HORIEK LABURBILTZEN DUTE, MODU INDARTSU BATEZ, FAMILIA, LAGUNAK ETA BORROKAKO KIDEOK BORROKATZEN JARRAITZEKO, BETYK EMATEN DIZKIGUN INDARRA ETA ITXAROPENA.

"NIK USTE DUT GURE ERRONKAK BAT BAKARRA DIRELA. MUNDU ASKORENTZAT TOKIA IZAN DEZAKEEN MUNDU BAT ERAIKI ETA MUNDU HORIEK BERDINTASUNAREKIN ZERIKUSIA IZAN DEZATELA. BERTAN BIZITZA DUINA, ONGIZATE, JUSTIZIA ETA DUINTASUNA IZAN DAITEZELA. HORREK LAN ASKO ETA AMETS UGARI EKARTZEN DITU BERAREKIN. UTOPIA BAT DA IBILTZEN JARRAITZEKO. LORTZEA ESPERO DUGU. BATZUETAN UNE ZAILAK IZATEN DIRA ETA BORROKAN EZ SEGITZEKO TENTALDIA SORTZEN ZAIGU BAINA ORDUAN BADA BETI KIDE BAT GERTU, ADORETSU, ESATEN DIZUNA: ALTXA ZAITEZ! EZ ZAITEZ KEZKATU! HAU HORRELA DA! PASAKO DA! ETA HORRELA, ZULOTIK ATERA ETA IBILTZEN JARRAITZEN DUGU. HANDIA DA GERO AMETSA ETA URRATSEZ URRATS ERREALTATEA EGINEN DA".

BETY CARINO.

www.facebook.com/homenajea.carino

www.nodo50.org/mugarik

mugarik@nodo50.org



Mugarik Gabe
Nafarroa

Orkestra de Cooperación con el Sur



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



OCSI
Organización de Cooperación
y Solidaridad Internacional



Fundación Fundazioa

